



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduak 7

Vitoria-Gasteiz, 7 de diciembre de 2021

Lana eta Enplegua

JAURLARITZAREN KONTSEILUAK DSBE ETA EPO GASTUETARAKO 2022RAKO XEDAPENA ONARTU DU

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 432,45 milioi euroko gastua onartu du datorren urterako, aurrekontua onartu aurretik, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea duten pertsonen diru-sarrerak garantizatzen.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kasuan, 2022rako aurreikusitako zenbatekoa 345 milioi eurokoa da, honela banatuta: Araba 57,39 milioi, Gipuzkoa 78,27 milioi eta Bizkaia 209,32 milioi. Datorren urtean jaso beharreko zenbatekoak % 3 gehitu dira.

Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari dagokionez, aurreikuspena, guztira, 87,45 milioi eurokoa da, 14,72 milioi Arabaren kasuan, 21,36 milioi Gipuzkoaren kasuan eta 51,35 milioi Bizkaiaren kasuan.

Beharrezkotzat jotzen da aldez aurretik bideratzea, bi prestazioak hileroko ordaintzen baitira; beraz, bermatu behar da Lanbidek, horiek kudeatu eta ordaintzeko ardura duen organoak, finantzaketarako baliabide ekonomikoak izango dituela 2022ko urtariletik aurrera.

Bi prestazio horiek Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legean jasota daude.

Lana eta Enplegua

LANBIDEK ETA OSALANEK ENPLEGU-PROGRAMETARAKO ETA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO LAGUNTZEN DEIALDIAK AURRERATU DITUZTE

Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, Jaurlaritzak enplegu-programetarako eta lan-arriskuaren prebentziorako laguntzen deialdia aurreratzea onartu du, 2022ko aurrekontuak indarrean sartzen diren unetik eskuragarri egon daitezkeen.

Lanbideren kasuan, enpleguarekin lotutako bost laguntza-deialdi dira. Lehen helburua 16 eta 30 urte bitarteko gazteei administrazio publikoetan eta sektore publikoko erakundeetan lehen esperientzia profesionala emateko programa bat finantzatzea da. Europar Batasunak finantzatutako 7,5 milioi euroko zuzkidura du, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Era berean, 3 milioi euroko partida bat onartu da, langabetuei zuzendutako kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak diruz laguntzeko. Programa honen helburua EAEn instalatutako edo ezarri berri diren enpresek sortutako lanpostu berrietara egokitutako prestakuntza espezializatua eskaintzea da. Enpresek edo erakundeek konpromisoa hartu behar dute prestakuntza-ekintza amaitzen duten pertsonen % 50 kontratatzeko gutxienez, eta kontratazioek gutxienez sei hilabeteko iraupena izan beharko dute lanaldi osoan, eta urtebetekoa lanaldi partzialekoa bada. Emandako prestakuntza-espezialitatearekin lotutako lanbide eta kategoria batean kontratatu beharko da.

Gobernu Kontseiluak 2022rako txanda-kontraturako laguntzen deialdia ere onartu du. Azken hartzailleak, alde batetik, lanaldi osoko txanda-kontratu baten bidez kontratatzen diren 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako langileak edo langabeak dira. Kontratu horrek mugagabea izan beharko du hasieratik, edo mugagabe bihurtu beharko da, gehienez ere, ordeztutako pertsonak erretiro osoa hartzen duenean. Bestetik, 30 urtetik beherako langabeak edo 45 urtetik gorakoak, txanda-kontraturen baten ondorioz kontratu gehigarria sinatzen zaienean. Diru-laguntzaren zenbatekoa 8.400 €-koa da kontratatutako pertsona bakoitzeko, eta kopuru hori % 10 igoko da txanda hartzen duen pertsona emakumea bada. Programak milioi bat euroko zuzkidura du, eta, beraz, 115 laguntza-eskaerari erantzun ahal izatea espero da.

2022an, emakume langabetuak lan maskulinizatueta prestatzeko eta kontratatzeko proiektuetarako diru-laguntzen programaren deialdi berri bat egingo da. Programa hau aurten jarri da martxan lehen aldiz, eta soldata-arrakala murriztea du helburu, emakumeak oso presentzia txikia duten sektoreetan txertatuz. Aurrekontuko bi milioi euroetatik 860.000 kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-jardueretarako dira, eta 1,14 milioi zikloa osatzen duten eta, gutxienez, sei hilabetez lanaldi osoan diharduten ikasleen % 70 kontratatzeko.

Era berean, gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko Lehen Aukera laguntza-programaren deialdia onartu da. Langabezian dauden eta aurretik lan-esperientziarik izan ez duten edo beren titulazioarekin zerikusia duten enpleguetan esperientzia gutxi duten gazteak jaso ahal izango dituzte. 2022rako lau milioi euroko zuzkidurarekin, praktikaldiko 550 kontratu eta 150 kontratu mugagabe finantzatzea espero da.

Bestalde, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak deialdia egiten du hurrengo ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetako edo lantokietako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten erakunde publiko edo pribatuentzako diru-laguntzetarako. Deialdi honek 300.000 euro ditu.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKAL ADMINISTRAZIOEN EROSKETEN % 75 IRIZPIDE JASANGARRIEKIN EGINGO DA HAMAR URTE IGARO BAINO LEHEN

- Eusko Jaurlaritzak argi berdea eman dio Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako programari, 150 erakunde publiko eta 50 erakunde pribatu inplikatzeko asmoarekin
- Euskal sektore publikoa aurrendaria da Europan, erosketa eta kontratazio publiko berdearen ezarpenari dagokionez: 20 urteko ibilbidea egin du eta nazioarteko sariak jaso ditu
- Ihobe idazkaritza teknikoaz arduratuko da eta honako zerbitzu hauek eskainiko ditu, besteak beste: lizitazioetan aholku eta laguntza ematea, prestakuntza, ETEentzako sostengua, eta jardunbide egokien aitortzarako urteko foro bat.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2030erako hirugarren Programa aurkeztu du gaur. Programa Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eta Ekonomia eta Ogasun Sailak egin dute elkarrekin, hainbat erakunde publiko eta pribaturen parte-hartzearekin, eta ezartzen duen helburua da euskal administrazio publikoek egiten dituzten kontratazio eta erosketen % 75 irizpide jasangarriez egitea, ingurumen-inpaktu handiena dutenen kasuan, hamarkadaren amaierarako.

Euskal sektore publikoaren erosketa eta kontratazio nagusiak lehenetsitako 12 kategoriatan sartzen dira, alegia: obra eta azpiegituren zerbitzuak, ehunezko produktuak, energia elektrikoa, ibilgailu astunak, eraikuntza eta urbanizazioa, elikadura, argiteria publikoa, ekipo informatikoak, altzariak, lorezaintza, ibilgailu arinak eta inprimaketarako ekipoak. Kasu horietan, erosten diren 4 produktu edo zerbitzu bakoitzetik 3 Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programak jasotzen dituen jasangarritasun-irizpideekin erosi beharko dira.

Programa horren helburua da euskal sektore publiko osora iristea eta atxikitako erakunde publikoen kopurua 150era igotzea; halaber, gutxienez berrogeita hamar enpresa pribaturen atxikipena lortu nahi du. Indarraldiaren amaierarako espero diren emaitzetako batzuk honako hauek izango dira: produktu, obra eta zerbitzu berdeen erosketa eta erabilerari lotutako karbono-isurketak % 26 murriztea; eta euskal erakunde publiko guztien hornidura elektrikoaren % 100 iturri berriztagarrietatik etortzea.

Euskadi, Europako abangoardian

Euskadiko sektore publikoa aurrendaria da Europan, erosketa eta kontratazio publiko berdearen ezarpenari dagokionez, 20 urteko bidea egin baitu alor horretan; orain, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2030erako hirugarren Programa hau bat dator europar politiken lehentasun estrategikoekin, Europako Itun Berdearekin eta euskal ingurumen-politiken

lehentasunekin -Euskadiko Itun Berdean definituak-; horren bitartez, Euskadiren bilakaera positiboa azkartu nahi da erosketa berdearen arloan.

Elementu nagusi gisa, Programa berriak euskal enpresa-sektorearen rola eta protagonismoa indartzen ditu, besteak beste produktu eta zerbitzu ekodiseinatuen eskaintza sustatuz. Aldi berean, erosketa berde pribatua ere bultzatu nahi da, merkatuarekin modu koordinatuan arituz, ekintza publiko-pribatuaren onurak hedatzeaz batera, ingurumenaren babesean ez ezik enpresen lehiakortasunean eta Euskadiko pertsonen ongizatean ere eragina izan ditzaten.

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2030erako Programa berriak 5 jarduera-eremu identifikatzen ditu, eta hortik 10 jarduera-lerro eratoritzen dira:

1. Erosketa eta kontratazio berdea finkatzea, Euskadiko politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa, beraren rola euskal sektore publikoaren esparru politiko eta juridikoan indartuz.
2. Aurrera egitea erosketa eta kontratazio publiko berde publiko eta pribatuarekin hartutako konpromisoan, euskal sektore publiko osoaren parte-hartzea bultzatuz eta euskal enpresak sentsibilizatuz eta mobilizatuz.
3. Erosketa eta kontratazio berdea erakundeen elementu estruktural eta berrikuntza-elementu bihurtzea, inplementazio sistemiko eta estrategikorako beharrekoak diren baliabideak eskainiz eta prozesuan inplikaturako pertsonal osoa alor horretan profesionalizatuz.
4. Kalitatezko merkatu egoki eta prestatu bat izatea, elkarrizketa eta lankidetzaren berarekin sustatuz, eta enpresa hornitzaileak kontratatzaileen ingurumen-eskariei aurre egiteko prestatuz, batez ere ETEak.
5. Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak bistaratzea, inplementazioa eta emaitzak neurtuz, eta emaitza horiek barne-eremuan, Europan eta nazioartean azalduz eta sustatuz.

Hori guztia bosna urteko bi Ekintza Planetan hedatzen da: epe ertainerako Plan batean (2021-2025), gaur aurkeztutako programan jasoa; eta epe luzerako bigarren Ekintza Plan batean (2026-2030), lehenengoa bukatu ondoren prestatuko dena.

Erosketa berdeak bi hamarkada egin ditu Euskadin

Orain dela bi hamarkada baino gehiago, mundu osoko hainbat herrialdek aitortu zuten ingurumen-narriaduraren eta injustizia sozialaren arrazoi nagusietako bat ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasangaitzak zirela. Harrezkero, Euskadi beti egon da garapen ekonomiko eta sozialeko eredu jasangarriagoetara zuzendutako trantsizioaren buruan kokatutako europar lurraldeen artean; horri begira, ingurumen-irizpideak erosketa eta kontratazio publikoan integratzera konprometitua da, modu sendo eta egonkorrean, plangintza estrategikoaren maila guztietan.

2002an, Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiak irizpide ekologikoz egindako erosketa publikoaren sustapena ezarri zuen helburu gisa, eta Ihobe Sozietate Publikoa baliabideak eta tresnak lantzen hasi zen, helburu hori lortzeari begira. Gainera, enpresa-sektorearekin ere hasi zen lanean, eskaintako produktu eta zerbitzuen ingurumen-kalitatea hobetzeko. Geroago, helburu hori jarduera-lerro gisa sartu zen Euskadiko Ingurumen Esparru Programetan, eta lehentasuna eman zitzaion Gobernu Kontseiluaren 2008ko Erabakiaren ostean, alegia, Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzko Erabakiaren ostean.

2011n, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen lehenengo Programa onartu zen, eta horrek “erosketa publikoa” sartu zuen agenda politikoan. Plan horrek lortu zuen, gainera, ingurumen-irizpideak txertatzeko helburu argiak ezartzea; aldi berean, irizpideen definizioarekin jarraitu zen, merkatuarekin koordinatuta, gai horren inguruko prestakuntza indartu zen, eta erakunde publikoei laguntzeko zerbitzu pertsonalizatu bat ezarri zen.

2015 eta 2020 bitartean, jauzi kualitatibo bat egin zen erosketa eta kontratazio publiko berdearen erabileran, bai Europan eta bai Euskadin; izan ere, sostengu-tresna gisa integratu zen Euskadiko garapen jasangarriaren alorreko politika eta estrategia gehienetan, eta produktu, obra eta zerbitzu jakin batzuen erosketa berdera behartzen duten araudiak definitu ziren.

2016an, berriz, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Bigarren Programa onartu zen, 2020rako. Helburua zen euskal administrazio publikoa ingurumen-irizpideak bere erosketa- eta kontratazio-prozesuetan integratzera bultzatzen jarraitzea. Azken programak 35 erakunde publiko baino gehiago bildu ditu, eta emaitza izan da euren erosketen % 46 berdea izatea lortu dutela.

Gainera, Programa saritua izan da mundu mailan, zeren AEBetako Erosketa Jasangarriaren Lidergo Kontseiluak (Sostenible (Sustainable Purchasing Leadership Council-SPLC) ematen duen “Erosketa Jasangarrien Lidergoaren 2020ko Sari” nagusia lortu baitzuen. Eusko Jaurlaritza onena izan zen Administrazio Publikoaren kategorian, iazko edizioan, eta horrek aintzatetsi zuen euskal administrazio publiko osoak bere erosketak ingurumen-irizpideez egitearen alde egindako lana.

Orain, 2030era arte iraungo duen etapa bat hasten da, eta horri begira Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa berri honek erronka berriak hartzen ditu bere gain, euskal ekonomia- eta ingurumen-politikaren koherentzia segurtatuz lehentasunezko hiru eremuetan -ekonomia zirkularra, klima-aldaketa, eta ingurune naturala eta biodibertsitatea-, erosketa eta kontratazio publiko berdearen ezarpena finkatzeaz batera; gainera, nobedade nagusi gisa, enpresa-sektorea mobilizatzen du berak ere irtenbide jasangarriak eskaini ditzan, ingurumen-errendimendu handiagoa lehiakortasun handiagoarekin uztartuz.

Ihobe, Idazkaritza Teknikoa

Ihobe Sozietate Publikoak jarraituko du Programaren idazkaritza teknikoaz arduratzen, eta honako zerbitzu hauek eskainiko ditu, besteak beste: aholkua eta sostengua atxikitako erakundeen lizitazioetan; prestakuntza, bai enpresa hornitzaileei eta bai erosketa-sailetako arduradunei; eta ETEentzako sostengua, euren lehiakortasuna merkatu horretan indartu ahal izan dezaten.

Halaber, aurreikusita dago erosketa berdearen irizpideak 3 urtetik behin berraztertzea eta eguneratzea, euskal lehentasunekin lerrokatzeko, eta urtean behin foro bat egiteko asmoa dago, jardunbide egokienak aitortzeko eta esperientziak konpartitzeko.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

AKORDIOA, ABANTO ZIERBENAKO, TRAPAGARANGO ETA PORTUGALETEKO AUZO KALTEBEREN HIRI-BERRONERATZERAKO ZUZENEKO DIRULAGUNTZETARAKO

Gobernu Kontseiluak, gaur, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, akordioa sinatu du, Abanto-Zierbenako, Trapagarango eta Portugaleteko udalei zuzeneko dirulaguntzak emateko, auzo kalteberetan hiri-berroneratzerako proiektuak abian jartzeko.

Hiru udal horientzako laguntza berri horien bidez, EAEn hiria berroneratzeko proiektuak dituzten udalerrien sareko auzo kopurua areagotu ahal da. Une honetan, Bilbokoa, Durangokoa, Eibarkoa eta Lasarte-Oriakoa daude martxan; ekimen horien bidez, 42 eraikinetan banatutako 741 etxebizitzatan bizi diren 2.000 pertsona ingururen bizi-kalitatea hobetzen ari da.

Ezkerraldea-Meatzaldeko hiru udalerriak Berpiztu programako funtsen onuradun diren lehentasunezko arreta-eremuen barruan daude; haien bidez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 14 milioi euro bideratuko ditu 2021aren eta 2023aren artean EAeko auzoetan hiria berroneratzeko jarduketak sendotzera.

Abanto-Zierbenan eta Trapagaranen kalteberatasun handiko auzoak identifikatu dira, eta haietan, aurretiko analisien arabera, etxeko batez besteko errenta ez da urtean etxebizitzako 15.000 euro baino gehiagokoa. Bi kasuetan, auzoko bulegoa sortuko da (*opengela* izenez ezagutzen dira), auzokide eta erkidegoei laguntza eta aholkularitza emateko, obrak nola egin eta finantzatu jakiteko, eta zailtasun ekonomiko gehien duten familiei jarduketak ordaindu ahal izateko finantzaketa osagarria bermatzeko funtserako sarbidea emango zaie.

Abanto-Zierbenaren kasuan, 2021aren eta 2023aren artean 6,28 milioiko zuzeneko dirulaguntza Peñucas auzora bideratuko da; 20 ataritan banatuta dauden 200 etxebizitzaren eremua (zazpi bloke). Jarduketa integrala honako honetan datza: eraikin eta etxebizitzaren birgaitze energetikoa, irisgarritasunekoa, bizigarritasunekoa, segurtasunekoa eta digitalizaziokoa, eremua berrurbanizatzea eta, horretarako, auzoko irisgarritasuna, udal-euskaltegiaren birgaitze energetikoa, enplegu-planak, finantzaketa eta ikasketak kontuan hartzea.

Trapagarango kasuan, bestalde, 3,91 milioiko zuzeneko dirulaguntza San Andres auzora bideratuko da; bertan, 195 etxebizitzak parte hartuko dute hiria berroneratzeko proiektuan. Esku-hartzean honako jarduketa hauek egingo dira: eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko dira efizientzia energetikorako, eta hirigintzako zenbait jarduketa egingo dira, ingurumeneko jasangarritasunari begira, besteak beste, eraikin zaharkituen berrerabilera aztertzea eta gizarte-inklusioko ekintzak, enplegua eta I+G+b.

Portugaleten, Eusko Jaurlaritzaren ekarpena 380.875 eurokoa izango da, esku-hartze integrala egiteko. Esku-hartze horren bidez, La Floridako parkea leheneratu nahi da, ekipamendu berrieekin eta erdigunea estaliz, eta bide-azpiegiturak konpondu nahi dira eta birgaitze energetikoa, bizigarritasunekoa eta irisgarritasunekoa sustatu nahi da, Grumete Diego kalean dauden 23 etxebizitzatan (parkearen ondoan); izan ere, arazo larriak dituzte eraikinen inguratzaileetan eta haiek okerragotu egiten dute auzokideen bizi-kalitatea eta zaildu eremua deskarbonizatzeko helburuak.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

EUSKO JAURLARITZAK SEKTORE PUBLIKOAN ETA PRIBATUAN ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK SORTZEA SUSTATZEKO ETA ELKARLANEKO ETXEBIZITZAK ARAUTZEKO AGINDUA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak, Iñaki Arriola Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, bizitegitarako etxebizitza eta eraikinen alokairua eta erabiltzeko beste modu batzuk sustatzeko jarduketei buruzko agindu berria onartu du. Araudi berri hori EAEko Etxebizitza Legeak garatzen du, erakunde-maila guztietan alokairua sustatzeko, eta, gainera, elkarlan publiko-privatuko formulak jartzen ditu abian, sektore pribatuak ere arrazoizko prezioa alokairua susta dezan.

Batetik, arauak aurretik bazeuden laguntzak areagotzen ditu, administrazio eta erakunde publiko eta pribatuek alokairu babesturako bideratuko diren etxebizitzak eraikitzea, birgaitzea edo eskuratzea sustatzeko. Bestetik, beste hiru jarduketa-ildo gehitzen ditu, EAEn errentamendua sustatzeko, alokairu babesturako etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak parkea handitu eta parke pribatu hutsa mobilizatzeko.

Laguntzak zuzenak izango dira –itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak eta mailegu baten interes-tasaren erabateko subsidiazioa edo partziala– eta finantzaketa kualifikatua –mailagu kualifikatuak eta banku-deskontuak–. 2022rako 19 milioi euroko aurrekontua dago hasiera batean. Laguntza horiek bateragarriak izango dira beste administrazio batzuen laguntzekin, eta alokairu soziala bultzatzeko Next funtsekin.

A. Etxebizitzak eskuratzea, sustatzea eta/edo birgaitzea, errentamendu babestuan lagatzeko

ERRENTAK	LAGATZEKO EPEA	ZENBATEKOAK	AURREKO AGINDUA
BOE erregimen orokorra	20 urte	18.000	10.000 euro 15 urtean
	50 urte	euro/etxebizitza 45.000	20.000 euro 50 urtean
BOE erregimen berezia	20 urte	21.000	18.000 euro 15 urtean
	50 urte	52.500	40.000 euro 50 urtean

Aginduak, halaber, laguntza osagarriak barne hartzen ditu, hasierako lagapen-epak luzatzen dituztenentzat. Sustapenerako eta birgaitzerako laguntzek, gainera, asistentzia teknikoaren eta urbanizazio-kostuen % 100 arteko dirulaguntzak ezartzen dituzte, bien artean etxebizitzako 6.000 eurokoak, gehienez, aurreko aginduaren bikoitza –9.000 euro, lehentasunezko jarduketa-eremuen kasuan, aurreko araudian baino % 63,6 gehiago–.

B. Zuzkidura-bizitokietarako eraikuntzak sustatzea

Zuzkidura-bizitokiaren kasuan, eraikuntzaren kostuaren % 100 arteko maileguak emango dira obrak eta ordainsari teknikoak ordaintzeko –Gobernuak interes-puntuak subsidiatuko ditu interes-kostuari aurre egiteko-. Bizitokiko, 100.000 euro arteko ordainsari teknikoak. Dirulaguntzak 50.000 eurokoak izango dira zuzkidura-bizitoki bakoitzeko.

C. Alokairu babestua sustatzea landa-eremuetan eta eremu hustuetan

Aginduak 5.000 biztanle baino gutxiagoko edo despopulazio-egoeran dauden udalerrietan edo biztanleguneetan –balain eta biztanleriaren % 10 galdu badute azken hamarkadan edo biztanle kopurua 2000. urtean zenbatutakoaren % 80a iristen ez bada– alokairu babesturako babes publikoko etxebizitzak sustatzeko pizgarri bereziak zabaltzen ditu, dirulaguntza areagotuen bidez. Orain arte laguntzak 3.000 biztanlerarteko udalerrietara zuzenduta zeuden eta jardueren kontzeptuak mugatuagoak ziren.

Neurri bereziak egongo dira despopulazio-egoeran dauden eremuetan honako kasu hauetarako:

- Etxebizitzak birgaitzeko: 1.500 euro arte, obretarako metro koadro bakoitzeko, eta 9.000 euro, asistentzia teknikorako eta ordainsarietarako
- Udalek erabiltzen ez diren etxebizitzak errentamendurako erabiltzeko eskuratzen dituzten etxeetarako: 20.000 euro, 20 urteko errentamenduetarako erregimen orokorreko etxebizitzako; kopuru hori igo egingo da, eta 50.000 eurokoa izango da, 50 urteko alokairuen kasuetarako. 22.000 euro, erregimen berezien kasuan, 20 urtetarako, eta 55.000 euro, 50 urteko errentamenduetarako.

D. Cohousing-a edo elkarlaneko etxebizitzak

Aginduak elkarlaneko etxebizitzak (cohousing-a) proiektuak sortzeko arau-esparru berria garatzen du. Hura etxebizitza batera sartzeko sistema bat da, eta, hartan, aurretiko sarrera bat ordaintzen da –eraikina birgaitzeko edo eraikitzeko, gehienez 30.000 eurokoa–, eta hileko kanon bat –sekula ere ez da 750 eurotik gorakoa izango– autokudeaketaren erregimenean bizi diren familiek berek eratzen duten etxebizitza-erkidegoa kudeatzen duen irabazi-asmorik gabeko elkarte edo kooperatiba bati.

Eraikinek bost etxebizitza izan beharko dituzte, gutxienez, eta erabiltzeko eskubidearen erregimenean –espazio komunak barne– eskuratuko dira, eta okupatzaileen ohiko etxebizitza izan beharko dute. Formula hori gazte, adineko, eta belaunaldien arteko proiektuei zuzenduta daude, eta baita familia gurasobakar edo familia ugari, desgaitasunak dituzten pertsona edo Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan gutxienez hiru urtez daramatzaten pertsonen zuzentzen zaie ere.

TIPOLOGIA	BALDINTZAK	LAGUNTZA ETXEBIZITZAKO
Etxebizitza librea	750 euro arteko hilerokoa eta 30.000 euro arteko hasierako ekarpena	9.000 euro
	600 euro arteko hilerokoa eta 25.000 euro arteko hasierako ekarpena	12.000 euro
Etxebizitza babestua	750 euro arteko hilerokoa eta 30.000 euro arteko hasierako ekarpena	12.000 euro
	600 euro arteko hilerokoa eta 25.000 euro arteko hasierako ekarpena	15.000 euro
Belaunaldien artekoa		15.000 librea bada
		18.000 babestua bada

Jarduera hauek etxebizitza libre edo babestuekin egin ahal izango dira, eta mugiaraziko lurzorua pribatua izan beharko da. Cohousing proiektuek sarbidea izango dute mailegu eta laguntza berezien bloke batera. Etxebizitza egokituek gainera, beste 3.000 euro gehiago jasoko dituzte.

Alokairu programa

Alokairu inbertitzaile instituzionalek –banku-erakundeak, pentsio-funtsak, aseguru-konpainiak, higiezinetak inbertsio-sozietateak, etab.– etxebizitzan inbertsio pribatuak sustatzeko elkarlan publiko pribatuko programa berria da, eraikinak sustatu eta birgaitzeko, administrazioari eskuratzeko moduko alokairurako lagatzeko. Helburua da Eusko Jaurlaritzari eraikinak edo etxebizitzak blokeak lagatzea, 7 eta 75 urte bitartean alokairu pribaturako erabil daitezten. Eusko Jaurlaritzak birgaitu egingo du eraikina eta mantentze-lanak egingo ditu denbora horretan zehar, eta, adostutako epea amaitzean, erosteko aukera izango du. Aldi berean, inbertitzaileari kanon bat ordainduko dio, Bizigune programaren kopuruak errespetatuz (asko jota 650 euro hilean 2022an).

Osasuna

OSASUN SAILAK BIOCRUCES BIZKAIARENTZAKO DIRULAGUNTZA ONARTU DU, IKERKETA GENOMIKORAKO SEKUENTZIAZIO-SISTEMA BAT EROSTEKO

- Dirulaguntza 500.000 €-koa da, eta erosketaren guztizko zenbatekoaren % 60 estaliko du gutxi gorabehera
- Erositako ekipamenduak (NovaSeq 6000) aukera emango du, besteak beste, gaixotasun arraroekin lotutako biomarkatzaile berriak identifikatzeko. Horrek atea zabalduko dio itxaropenari gisa horretako patologien diagnostikoan eta tratamenduan
- Osasun Sailaren 2021-2024 aldirako Marko Estrategikoan identifikatutako erronken barruan kokatzen da mugarri hori

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Osasuneko sailburu Gotzone Sagarduiren Agindua, **Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketako Institutuaren Elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematea onartzen duena, NovaSeq 6000 sekuentziazio-sistemaren erosketan laguntzeko**. Dirulaguntza 500.000 €-koa da, eta erosketaren guztizko zenbatekoaren (880.000 €, **BEZik gabe**) % 60 estaliko du gutxi gorabehera.

Horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistema publikoak **illumina® konpainiaren NovaSec™ 6000 sekuentziazio-sistema** gehituko dio bere teknologien katalogoari datozen egunotan. Azken belaunaldiko ekipamendu berritzaile horri esker, Osakidetzak erronka berriei aurre egin ahal izango die eta erreferente izango da bai asistentzia-mailan bai osasunaren arloko ikerketan eta berrikuntzan. Ildo horretan, **NovaSeq 6000** sistemarekin aukera berriak irekitzen dira ikerketa genomikoan, eta, horri esker, pazienteak hobeto sailkatu ahal izango dira zenbait azpipopulaziotan, eta, era berean, haien patologien diagnostiko hobea edo tratamendu zehatzagoa egin ahal izango da.

Gainera, doitasunezko medikuntza pertsonalizatuaren alde egiten dugu, eta, horretarako, **osasun-ikerketako institutuen eta Osakidetzaren asistentzia-sistemaren arteko baterako** kudeaketa-eredu berriak beharko ditugu, osasun-asistentziaren eskutik aurrera egin behar duen ikerketaren paradigma berrian **Euskal Autonomia Erkidego osoari zerbitzu** emateko.

Azpiegitura berri horrek aukera emango du, halaber, gaixotasun arraroekin lotutako biomarkatzaile berriak identifikatzeko. Horrek atea zabalduko dio itxaropenari gisa horretako patologien diagnostikoan eta tratamenduan.

Osasun Sailaren 2021-2024 aldirako Marko Estrategikoan identifikatutako erronken barruan kokatzen da mugarri hori. Besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistema hobetzen jarraitu nahi du, pertsonen osasuna hobetzen lagunduko duten azpiegitura berrietako inbertsioaren bidez.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK EMAKUNDEREN 900.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTU DITU UDALETAN PLANAK ETA BERDINTASUNA ETA EMAKUMEEN ELKARTEGINTZA SUSTATZEKO

Gobernu Kontseiluak Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen 900.000 euroko diru-laguntzen bi deialdi onartu ditu gaur. Alde batetik, irabazi-asmorik gabeko emakumeen elkarte eta federazioei eta emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu eta jardun-eremu bakarra duten fundazioei zuzendutako diru-laguntzak onartu dira (400.000 euro). Honen bidez diruz laguntzen diren proiektuek ikuspegi feminista eta interseksionala izan beharko dute, eta honako helburu hauek izango dituzte, besteak beste: emakumeen eskubideak hedatzea, emakumeen ahalduntzea bultzatzen duten partaidetza-prozesuak sustatzea, sareko truke-prozesuak, prestakuntza eta sentsibilizazioa, eta erantzukidetasuna eta kontziliazioa sustatzea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri, koadrila eta mankomunitateei zuzendutako diru-laguntza onartu da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta ebaluatzeko (500.000 euro). Toki-erakundeentzako diru-laguntza honen helburua da plan eta diagnostiko horiek egiteko behar duten laguntza teknikoa ematea.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK ONARTU DITU PROIEKTU SOLIDARIOETAN TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA EKIMENETARAKO LAGUNTZAK

- **Dirulaguntzek balioko dute desnutrizioa prebenitzeko, plataforma digitalen kooperatibak sortzeko, gizarte ekintzaitzako ekimenak sustatzeko eta Afrikako errealitateak ezagutarazteko**

Gobernu Kontseiluak garapenerako lankidetzako proiektuetan teknologia eta berrikuntza erabiliko dituzten lau dirulaguntza onartu ditu, gehienak Afrikan izango dira. Laguntzak eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatuko ditu, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailean dagoena.

Lehenengo laguntza, 210.227 eurokoa, zuzenduko da Noadhibouko, Mauritania, haurren eta amen desnutrizioa murrizteko. Horretarako sortuko garatuko da prebentzio eta detekzio sistema goiztiar bat. Innovation for Change SIC4CHANGE eta Rosa del Desierto erakunde sozialek erabiliko dituzte parte-hartze komunitarioa, lanabes teknologikoak eta sistema pizgarriak.

Bigarren dirulaguntza 89.187 eurokoa izango da, eta helburua da bultzatzea zerbitzu digitalak eskaintzen dituzten Iparraldeko zein Hegoalde Globaleko enpresen arteko plataforma digitaleko kooperatibak sortzen. Ekimen horrekin, Mondragon Unibertsitatea Enpresagintza gizarte ekimeneko kooperatibak enpresa digitaletan kooperatibismo eredua finkatzen saiatuko da, esperientziak trukatzuz eta formazioa emanez *gig economy* edo plataforma digitalen bidez enkarguzko langileen ekonomiaren inguruan. Gainera, laguntza horrekin esperientzia pilotu bat sustatuko du Hegoaldeko herrialde batean Mundukide GGKEarekin batera.

Mondragón Unibertsitatea Enpresagintzak jasoko du, 90.186 euroko beste dirulaguntza bat Africa Basque Challenge programa babesteko. Kenyako, Euskadiko eta Senegaleko gazteak biltzen dituen ekimenaren hirugarren edizioa da, ekintzaitza sozial eta solidarioko proposamenak diseinatzeko. Oraingo honetan, bi bootcamp egingo dira, bata Kenyan eta, bestea, Euskadin, eta erabiliko dira osasun zerbitzuetarako sarbide ekitatiboa hobetzeko proposamenak elkarrekin sortzeko. Gainera, hiru edizioetako sei proposamen aukeratuko dira prototipatzeko eta merkaturatzeko.

Azkenik, Africanista Manuel Iradier eta Kultura Banderak elkarrekin 60.000 euro jasoko dituzte, Afrikaldia Afrikar Zinemaren Euskal Jaialdia antolatzeko. Laguntza honen xedea da Afrikako kulturen aniztasuna zinemaren bidez ikusaraztea eta baita bizikidetzaz zailtzen duten aurreiritziak, estereotipoak, zurrumurruak eta beldurrak indargabetzea ere.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK IA MILIOI BAT EUROKO DEIALDIA ONARTU DU ARTE ESZENIKOEN ETA MUSIKAREN ARLOKO AZPIEGITUREN MODERNIZAZIOA FINANTZATZEKO

- **Deialdia Europar Batasunak Finantzatutako Next Generation EU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dago**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du arte eszenikoen edo musikaren lanbide-jarduera garatzen den azpiegituren modernizazio eta kudeaketa jasangarrira bideratutako inbertsio-proiektuen finantziazioa. Guztira 978.349,91 euroko deialdia izango da.

Gaur onartutako deialdiaren helburua Euskadiko kultura-industrien lehiakortasuna indartzea, eta kultura-ekoizpenaren eskaintza hobetzea da, gero eta erakargarriagoa izan dadin euskal gizartearentzat berarentzat, eta, aldi berean, lehiakorragoa nazioartean.

Diruz lagunduko diren proiektuetako inbertsioek helburu hauek bete beharko dituzte:

- Ingurumen-eraldaketa.
- Eraldaketa digitala.
- Kudeaketa hobetzea.

Dirulaguntzak egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak jaso ahal izango dituzte beti ere arte eszenikoen eta musikaren ekoizpen edo programazio profesionalaren eremuetan ohiko jarduerak garatzen badituzte.

Bestalde, diruz lagunduko diren azpiegiturek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Honako eremu hauetako batean edo gehiagotan jarduera izatea egiaztatu beharko dute:
 - a. Zuzeneko arteen erakusketa: antzokiak, auditoriumak, zirko-karpak eta musika-aretoak.
 - b. Saiakuntza eta ekoizpen eszenikoa: antzerkia, dantza, zirkua eta diziplina anitzak. Zuzeneko musika-ekoizpen eta/edo entsegu-aretoak.
 - c. Aipatutako kategorietakoren batean urteko jardueraren % 50etik gorako erabilera profesionala.
2. Inbertsio proiektu guztiek ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa eta etiketatze klimatikoaren eta digitalaren baldintza errespetatu beharko dituzte.

Proiektuen balorazioa bi multzotan burutuko da: batetik, 10.000 biztanletik gorako herrietan kokatutako erakunde publikoen egitasmoak; eta bestetik 10.000 biztanletik beherako herrietan kokatutako erakunde publikoenak zein pribatuenak. Gainera, proiektu bakoitzari, gehienez, 250.000 euroko laguntza emango zaio. Inbertsioak %80ra arte lagundu ahal izango dira diruz. Titular bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du abenduaren 30ean hasi eta hilabeteko epean.

Next Generation EU

Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko helburua dute Next Generation EU funtsek. Aparteko aukera ematen dute errekonstruzio-plan espezifikokoak hedatzeko eta pandemiak inbertsioan eta jarduera ekonomikoan duen eraginari aurre egiteko. Helburu hori lortzeko neurriak sei zutabetan daude egituratua, eta horien artean daude, besteak beste, trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala eta hazkunde-eredu adimendun, jasangarri eta integratzaile bat, honako hauek barne hartzen dituenak: kohesio ekonomikoa, enplegua, produktibitatea, lehiakortasuna, ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Europar Batasunak berak adierazitakoa da, kultura- eta sormen-sektoreek zeregin garrantzitsua izan dezaketela susperraldi iraunkorra bermatzeko orduan, beren jardueren izaera dela eta: hazkunde azkarrekoak eta jabetza intelektualetik eta sormenetik eratorritako balio ekonomikoa dutenak. Hala ere, aldi berean onartzen da Covid-19aren krisian ezarritako gizarte-harremanetarako murrizketek ondorio ekonomiko bereziki negatiboak izan dituztela. Kulturari dagokionez bereziki zuzeneko jarduera izan da kaltetuena: arte eszenikoak eta musika, batez ere.

Kultura eta Hizkuntza Politika

**EUSKO JAURLARITZAK 19.500 EUROREKIN LAGUNDUKO DU BILBOKO
ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOAK “LA NAVAL”
ENPRESAREN INSTALAZIOETAN DAUDEN ALTZARI HISTORIKOAK
EROSTEA**

Sestaoko Construcciones Navales del Norte, *La Naval* bezala ezaguna, 2020an desagertu zen. Bilboko Itsasadarra Itsas Museoak enpresaren hartzekodunen konkurtsoaren berri izan zuenean 100 urte baino gehiagoko historia duten altzariak erosteari ekin zion. Izan ere, gaur egun Itsasmuseum dagoen tokian zegoen Euskalduna ontziola eta bertakoak ere badira altzari horietako batzuk. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 19.500 euroekin finantzatuko du erosketari hori.

Erosiko diren altzarien artean mahaiak, aulkiak, armairuak, koadroak, erlojuak eta bestelako objektuak daude eta museoak bere instalazioetan gordetzeko modua aurkitu bitartean Bizkaiko Foru Aldundiaren “Bizkaikoa” entitatearen jabetzako biltegian gordeko dira. Batzuetan, aldi baterako erakusketa baten parte izan daitezke, edo piezaren bat erakusketa iraunkorrean erakutsi. Nolanahi ere, helburua, berez, Itsasmuseumeko bilduman integratzea da, eta etorkizunean kontserbatzea.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

KONTSUMOBIDEK KONTSUMITZAILEEN ELKARTEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DU

Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu egin du Kontsumobideren bitartez Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak sustatutako deialdia, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako eta babeserako elkarte eta erakundeei diru-laguntzak emateko, aholkularitza-, defentsa- eta informazio-eginkizunetan laguntzeko.

Laguntzetan bi ildo ezartzen dira. Lehenengoa kontsumitzaileei arreta ematera zuzenduta dago, eta bertan kontsumitzaileen erakundeen funtzionamendu orokorretik eratorritako gastuak diruz lagunduko dira, kontsumitzaileek aurkezten dituzten kontsultei erantzuteko, erreklamazioak kudeatzeko eta kontsumitzaileei zuzendutako bitartekaritzak eta prestakuntza- eta informazio-ekintzak egiteko.

«Laguntza juridikoa» izeneko 2. lerrorako, erakundeek kontsumitzaileei emandako laguntza juridikotik eratorritako gastuak diruz lagunduko dira, elkarteko aholkulari juridikoei egindako kontsultetan eta kontsumitzaile guztiei zuzendutako orientabide juridiko orokorretan.

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 431.000 eurokoak dira guztira.

Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2022ko otsailaren 17an amaituko da.

Trabajo y Empleo

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LA DISPOSICIÓN DE GASTO DE RGI Y PCV PARA 2022

A propuesta de la Vicelehendakari y Consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, el Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la disposición de gasto de 432,45 millones de euros para el año que viene, previa a la aprobación del presupuesto, a fin de garantizar los ingresos de las personas que tienen derecho a percibir la Renta de Garantía de Ingresos y la Prestación Complementaria de Vivienda.

En el caso de la Renta de Garantía de Ingresos, la cuantía prevista para 2022 asciende a 345 millones de euros que se distribuyen de la siguiente manera: Araba 57,39 millones, Gipuzkoa 78,27 millones y Bizkaia 209,32 millones. Las cuantías a percibir el año próximo se han incrementado un 3%.

En lo que respecta a la Prestación Complementaria de Vivienda, la previsión total es de 87,45 millones de euros, 14,72 millones en el caso de Araba, 21,36 en Gipuzkoa y 51,35 en Bizkaia.

Se considera necesario tramitarlo anticipadamente puesto que el pago de ambas prestaciones es mensual, de manera que ha de garantizarse que Lanbide, órgano encargado de su gestión y pago, disponga de los recursos económicos destinados a su financiación desde el mes de enero de 2022.

Ambas prestaciones están recogidas en la Ley 18/2008 para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

Trabajo y Empleo

LANBIDE Y OSALAN ADELANTAN LAS CONVOCATORIAS DE AYUDAS DE PROGRAMAS DE EMPLEO Y PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES

A propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, el Gobierno ha aprobado adelantar la convocatoria de ayudas para distintos programas de empleo y prevención de riesgos laborales con el objetivo de que estén disponibles desde el momento en el que entren en vigor los presupuestos de 2022.

En el caso de Lanbide se trata de cinco convocatorias de ayudas relacionadas con el empleo. La primera de ellas está destinada a financiar un programa para proporcionar a jóvenes de entre 16 y 30 años una **primera experiencia profesional** en administraciones públicas y entidades del sector público. Está dotada con 7,5 millones de euros financiados por la Unión Europea en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

